

Covid-19aren eragina EAEko kultur sektorean

Krisiaren behatokia

Emaitzen txostena

2020 maiatza



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	3
2. Testuingurua	4
2.1. Pandemiaren aurreko egoera: #Kulturadierazleak	4
2.2. Eragin ekonomiko orokorra 2020ko lehenengo hiruhilekoan: #AdierazleEkonomikoak	9
2.3. Aurrekariak: Esparruen eta sektoreen erreakzioa	11
3. Inkestaren emaitza orokorrak eta balioespenak.....	14
3.1. Jarduera: Jaitsiera nabarmena eta homogeneoa.....	15
3.2. Enplegua: Kaleratzeak saihestu arren, enplegu-maila eta batik bat lan-aukerak jaitsi egin dira	18
3.3. Balantze ekonomikoa: Zenbaki gorriak.....	22
3.4. Eraginaren eta erantzunaren balioespen subjektiboak.....	28
4. Sektore bakoitzaren ikuspegia.....	33
4.1. Arte eszenikoak	33
4.2. Ikusizko arteak	34
4.3. Liburuak.....	35
4.4. Musika	36
4.5. Ikus-entzunezkoak	37
4.6. Zeharkako ikuspegia.....	38
4.7. Kultura euskaraz*	39
5. Sektorea babesteko neurrien sintesia.....	40
6. Ondorio gisa	45
Eranskina	46
Metodologia	46
Sintesi-grafikoak	50
Taula eta grafiko osagarriak.....	55

1. AURKEZPENA

Kulturaren Euskal Behatokiak txosten honen bidez **Krisiaren behatokiaren** lehenengo emaitzak eta kultur esparru eta sektoreetan covid-19ak izandako eraginaren jarraipena eta azterketa egiteko gailua aurkezten ditu.

Alor guztietan gutxieneko informazio kopuru bat izateko xedez diseinatu da inkesta, eta sektoreko elkarteekin kontrastatu da. Hautatutako estrategiak uneko premiari eta datu partekatuak eta globalak izateko beharrianari erantzuten die.

Datuen lehenengo jasoaldikoak dira emaitzak, 2020ko apirilaren 9tik 26ra jaso direnak, eta 234 eragileren parte-hartzea izan dute.

Txostena honako atal hauez osatuta dago:


- Lehendabizi, covid-19a agertu aurreko kultur testuingurua deskribatu da. Horretarako kulturaren eta ekonomiaren alorreko adierazleak aurkeztu dira, covid-19a heldu aurreko egoeraren irudi global eta sintetiko bat eskaintzen dutenak.
- Era berean, emaitzak aurkeztu aurretik, sektoreak eta sektoreko eragileek erreakzio gisa abiarazi dituzten ekimenen begirada sintetiko bat eskaini da jarraian.
- Inkestaren emaitzei dagokienez, lehenik eta behin, jardueraren, enpleguaren eta balantze ekonomikoaren esparruan izandako analisi orokor bat aurkezten da, eta balioespenak txertatu dira iturri ofizialetako bigarren mailako datuak erabiliz. Jarraian, azterketa sektorial bat aurkezten da, sektore bakoitzeko datu espezifikoak eskainiz, bai pandemiaren aurreko egoerari dagokionez, bai inkestaren emaitzei dagokienez.
- Azkenik, ondorioak idazten hasi aurretik, sektoreari eskainitako laguntza-neurrien sintesi bat gehitu da, kronologiaren eta tipologiaren araberrako ikuspegi analitiko bat izateko.

2. TESTUINGURUA

2.1. Pandemiaren aurreko egoera: #Kulturadierazleak

Enpresei eta enpleguei buruzko EUSTATen Zerbitzuen Estatistikak sektorearen ikuspegi globalena eskaintzen du, kulturaren esparruan lan egiten duten sortzaile eta profesional mota guztiak txertatzen baititu bere sailkapenean.


1. grafikoa. Kulturaren arloko enpresen kopurua



Iturria: Zerbitzuen Estatistika (EUSTAT)
2017 eta 2018ko behin-behineko datuak

- 2018. urtean, kultura-jardueren barruan sailkatutako enpresek EAEko guztizko enpresa kopuruaren % 4 ordezkatzeko zuten.
- 2015. urtearekin alderatuta, kultura-enpresen kopurua 6.227tik 6.274ra igo da.


2. grafikoa. Kulturaren lan egiten duten pertsonak



Iturria: Zerbitzuen Estatistika (EUSTAT)
2017 eta 2018ko behin-behineko datuak

- 2018. urtean, kulturaren arloko enplegua EAEko enplegu guztiaren % 2,9 zen.
- 2015. urtetik aurrera, kultura-jardueretako enpleguaren bilakaerak hazkunde txiki bat izan zuela ikus daiteke.

3. grafikoa. Kultur sektorearen negozio-zifra (milioiak)




Iturria: Zerbitzuen Estatistika (EUSTAT)

- Kulturaren sektorean txertatutako jardueren negozio-zifra ia 2 mila milioi eurokoa da. 2015. eta 2016. urteetan atzerakada txiki bat izan zuen, baina bere bolumena mantendu du.

Kulturaren Euskal Behatokiko Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikak begirada espezifiko bat eskaintzen dio sektorearen muinari, eta honako ikuspegi hau deskribatzen du.


4. grafikoa. Kulturaren arloko eragileen kopurua



Iturria: Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistika, 2017.

- 2017. urtean **673** eragile, ekoizle eta erakusle zeuden Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikan.
- Lurralde historiko bakoitza behatuz gero, eragileen % 45,9 Bizkaian kokatzen zen eta % 41,9 Gipuzkoan.


5. grafikoa. Kulturaren arloan lan egiten duten pertsonen kopurua



Iturria: Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistika, 2017.


- Horiek guztira **2.936** langile enplegatzen zituzten (urteko lanaldi osoko langile baliokideak).
- Eragile pribatuek kulturaren arlo eta sektoreetako langileen % 51,3 biltzen dituzte.

6. grafikoa. Kulturaren arloko eragileen diru-sarrerak eta gastuak



Iturria: Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistika, 2017.


- 2017an bertan, guztira **407,5** milioi euro fakturatu zituzten, denera 9 milioi baino gehiagoko balantze positiboa izanik.
- Ekimen publikoaren pisua garrantzitsua da (alor publikoan sortzen diren diru-sarreraren % 47,1 ordezkatzeko).
- Eragile pribatuek jasotzen dituzten ekarpen publikoak baxuak direla esan daiteke.

7. grafikoa. Kulturaren arloko eragileen banaketa, sektorearen arabera

Iturria: Arteei eta Kultura Industriari buruzko Estatistika, 2017.


→ Estatistikako parte-hartzaileak:

- Arte eszenikoetako 129 programatzaile eta 92 ekoizle
- 97 liburu-denda eta 36 argitaletxe
- 116 musika-programatzaile eta diskoaren industriako 23 eragile
- 36 erakusketa-areto eta 19 arte-galeria
- 71 eragile ekoizle ikus-entzunezko sektorean eta 54 zinema-areto.

8. grafikoa. Eragileen, diru-sarreraren eta langileen banaketa, kultura motaren arabera

Iturria: Arteei eta Kultura Industriari buruzko Estatistika, 2017.


- Zuzeneko kulturari (kontzertuak, antzerkiak...) eta kultura erreproduzigarria deitzen zaionari (liburuen, diskoen edota zinema-sarreraren salmenta, besteak beste) dagokienez, zuzeneko kulturako eragileak nagusitu dira, baina kultura erreproduzigarriak pisu handiagoa dauka diru-sarrerengan eta enpleguarengan.
- Kultura erreproduzigarriaren diru-sarrerak 252,2 milioi eurotara iritsi dira, eta zuzeneko kulturarenak, berriz, 155,53 milioi eurotara. Kultura erreproduzigarriarekin lotutako enplegua 1.859,3 lanpostukoa da, zuzeneko kulturak 1.076,8 lanpostu dauzkan bitartean.

9. grafikoa. Kulturaren alorreko eragileen nortasun juridikoa

Iturria: Arteei eta Kultura Industriari buruzko Estatistika, 2017.

- Titulartasun pribatuko eragileak gailentzen dira, eta eragile publikoen eta pribatuen diru-sarreraren kopurua berdindu egin da (2017an 190 milioi euroren inguruan zegoen; eragile pribatuek % 47,6 eta eragile publikoek % 47,1 izanik).

10. grafikoa. Urte batean zehar kultura-jarduera bakoitza burutu duen pertsona kopurua (%)



Iturria: 2018ko EAEko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta

*Oharra: Irakurketaren kasuan, datuak irakurritako liburu kopuruari buruzkoak dira ("1-3" edo "4 baino gehiago").

11. grafikoa. Praktika kultural nagusien bilakaera 2008 eta 2018 bitartean (%)




Iturria: 2008 eta 2018 bitarteko EAEko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta

*1 = Egunero; 2 = Astean behin baino gehiagotan, 3 = Azkeneko hilabeteetan, 4 = Azkeneko urtean

**2008ko emaitzak Kulturaren Euskal Behatokiaren "Kultura Ohiturak, Praktikak eta Kontsumoa 2008" inkesta ustiatzetik lortu dira.


- Ikusleen ikuspegiaren oinarrituta, 2008-2018 bitarteko EAEko **parte-hartze kulturalari buruzko inkestek** egungo begirada bat eta begirada historiko bat eskaintzen diote kulturaren testuinguruari.
- Biztanleen praktika kulturalen artean, jarduera multzo batzuk beste jarduera multzo batzuk baino hedatuago daudela atzeman da. Jarduera ohikoenak liburuak irakurtzea eta zinemara eta kontzertuetara joatea dira, eta herritarren % 60k baino gehiagok burutzen ditu. Museoek, antzokiak eta liburutegiak % 40 eta % 50 arteko parte-hartzea izaten dute, gutxi gorabehera. Dantza eta arte-galeriak % 20 eta % 30 artean daude.
- Begirada ebolutibo bat izanez gero, **joera positiboa** ikus daiteke multzo osoarentzat. Aipatzekoa da kontzertuetara joateak, dantzak eta antzerkiak igoera handiagoa izan dutela.

12. grafikoa. Kulturari euskaraz parte hartzen duten pertsonak biztanleria-talde desberdinen artean (%)



Iturria: 2018ko EAEko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta


13. grafikoa. Urte batean zehar euskarazko jarduera desberdinetan parte hartu duten pertsonak, biztanleria-talde desberdinen artean (%)



Iturria: 2018ko EAEko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta

*Zinemari dagokionez, aukera izanez gero euskarazko zinemarekiko lehentasuna atzeman da.

14. grafikoa. Euskarazko praktika kultural nagusien bilakaera 2008 eta 2018 artean (%)



Iturria: 2008 eta 2018 bitarteko EAEko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta

→ **Euskarazko parte-hartze kulturala** EAEko biztanleriaren % 24,9k burutzen du (normalean euskaraz parte-hartzen duela dioen jendea).

→ Praktika desberdinen artean zeharka begiratu gero, biztanleria osoa aintzat hartuta, gehien burutzen den euskarazko jarduera musika entzutea dela ikusten da (% 55). Euskaldunen artean ehuneko hori % 83,5era igo da.

→ Jarraian, distantzia handi batera, antzezlanak ikustera joatea (% 17,8) eta irakurtzea (% 11,8) daude. Biztanleriaren % 15,4k nahiago du zinema euskaraz.

→ 2008-2018 bitartean alderatutako praktiken artean, igoera garbiak ikus daitezke euskarazko antzerkia eta bertsolarien emanaldiak ikustera joatearen kasuan, eta baita euskal musikariak edo musika taldeak entzuteko joeran. Zinemari dagokionez, zinemara joatean filmak euskaraz ikusten dituztela dioen pertsonen ehunekoa oso baxua den arren, % 0,4tik % 1,3ra pasa da. Azkenik, azkeneko hiru hilekoan gutxienez euskarazko liburu bat irakurtzearen ehunekoa egonkor mantendu da % 12aren inguruan.

2.2. Eragin ekonomiko orokorra 2020ko lehenengo hiruhilekoan: #AdierazleEkonomikoak

→ **2020ko lehenengo hiruhilekoko BPG estatu osoan (INE-Estatistika Institutu Nazionala):**

- % 5,2 aurreko hiruhilekoarekin alderatuta
- % 4,1 % urtetik urterako aldakuntza

→ **BEGd (Balio Erantsi Gordina) adarka:**

- % 4,1 Zerbitzuak (urtetik urterakoa)
- % 10,7 Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak (urtetik urtera)

→ **2020ko lehenengo hiruhileko BPG EAEn (EUSTAT):**

- % 4,5 aurreko hiruhilekoarekin alderatuta

2020ko lehenengo hiruhileko datuak BAI:

Estatu osoan

- **Langabezia-tasa:** % 14,4
- **Landunak:** 19,68 (milioi pertsona)

EAE

- **Langabezia-tasa:** % 8,72
- **Landunak:** 930.000 pertsona

EUSTATen balioespenak:

- **Enplegua: -3,1%** urtetik urterako aldakuntza; **-4,1%** hiruhileko arteko aldakuntza

- 2020ko lehenengo hiruhilekoan, Espainiako BPGak -% 5,2ko aldakuntza izan du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Tasa hori laugarren hiruhilekoan jasotakoa baino lau puntu baxuagoa da. Urtetik urterako aldakuntza -% 4,1ean kokatzen da, aurreko hiruhilekoan % 1,8an zegoen bitartean.
- Lehenengo hiruhilekoan, "arte, aisialdi eta entretenitzeko jardueren" Balio Erantsi Gordinak izan du beherakadarik handiena (-% 10,7) adar guztietan; zerbitzuen sektoreak -% 4,1 egin du behera eta merkataritza, garraioa eta ostalaritza -% 9,1 jaitsi da.
- EAEko BPG % 3,0 jaitsi da 2020ko lehenengo hiruhilekoan 2019ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, EUSTATEk egindako Hiruhileroko Kontuen Aurrerapenaren kalkuluen arabera. Egutegi- eta urtaro-eraginak atera ondoren, hiruhileko arteko terminoetan zenbatetsitako BPG -% 4,5 jaitsi da. Ekainak 5era arte ez dira datu desagregatuak zabalduko.
- Enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokide gisa neurtuta, % 3,1 jaitsi da EAEn, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta. Hiruhileko arteko terminotan, egutegi- eta urtaro-eraginak zuzendu ondoren, hiruhileko arteko aldakuntza -% 4,1ekoa izan dela uste da. % 8,72 urteko lehenengo hiruhilekoan.

Europako Batzordearen aurreikuspenak ekonomiaren jokaerari dagokionez (maiatzak 6):

- Aurten % 7,7ko jaitsiera eta datorren urtean % 6,4ko errebotea aurreikusten ditu eurogunean. Espainiako ekonomia aurten % 9,4 eroriko dela eta 2021ean % 7 haziko dela aurreikusten du Bruselak, langabezia-tasa % 18,9ra igo daitekeelarik.
- Batzordeak uste du ekonomiaren ibilbideak V hizki larri eta inperfektu bat marraztuko duela, eta hegoaldeko herrialdeek (Espainia, Italia, Grezia) angelu zorrotzagoa izango dutela.
- Espainiarentzat eginiko aurreikuspenek aurtengo urterako % 9,4ko erorketa zenbatesten dute, eta datorren urterako % 7ko igoera, "baldin eta murrizketa guztiak 2021 hasierarako kentzen badira".
- Greziak (% 19,9), Espainiak (% 18,9), Italiak (% 11,8), Kroaziak (% 10,2) eta Frantziak (% 10,1) pairatuko dituzte langabezia-tasa handienak. Txostenak argitzen du delako igoera herrialde horien behin-behinekotasun tasa altuekin eta turismoaren sektorearen pisuarekin lotuta dagoela, nahiz eta bi inguruabar horiek eskutik joan ohi diren.
- ERTE-Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen erabilera intentsiboak eta osasungintzara bideratutako gastua igo izanak, era berean, herrialde horien zorraren igoera ekarriko dute, bereziki Espainiaren eta Italiaren kasuan, pandemia gehien jasan dutenak baitira. Espainiako defizit publikoa BPGaren % 10,1era helduko da, 2012ko mailara itzuliko da alegia, zorra % 115,6ra igoko den bitartean.

2.3. AURREKARIAK: ESPARRUEN ETA SEKTOREEN ERREAKZIOA

2020ko martxoaren 14tik aurrera, hau da, covid-19 koronabirusak eragindako osasun-larrialdi egoerari aurre egiteko alarma-egoera dekretatu zen unetik aurrera, kulturaren esparruko eremu eta sektoreek bi lan-ildori heldu zieten: konfinamenduak sortutako egoeraren eragina diagnostikatzeari eta erakunde publikoetako arduradunei jardueren eteteari aurre egiteko neurriak proposatzeari. Jarraian, kulturaren esparruko hainbat elkarte profesionalek abiarazitako ekimenak laburbildu dira.

Zuzeneko arteak

Lehenik eta behin, zuzeneko arteen multzoak sortu dituen mahaiak azpimarratu behar dira, bai EAEn bai espainiar estatuan. Euskal esparruan, zuzeneko arteen elkarteak indarrak batzeko elkartu ziren eta agertokietako jarduna berrabiatzeko [ZUZENKO ARTEAK RESET ARTES EN VIVO](#) izeneko mahaia sortu izana jakinarazi zuten (martxoak 23). Mahaiak, modu progresiboan, proposamenak eta hartutako neurrien balorazioak argitaratzen ditu.

- Zuzeneko arteentzako [neurrien oinarrizko panela](#) (apirilak 6).
- Kulturako profesionalei laguntzeko programaren balorazioa egiteko [adierazpena](#) (apirilak 17)

Estatu-mailan, arte eszenikoen eta musikaren sektoreko hogeita hamahiru erakundek "[52 medidas extraordinarias para afrontar las consecuencias de la crisis sanitaria provocada por el Covid-19 en el sector de las Artes Escénicas y la Música](#)" dokumentua sinatu dute.

Edonola ere, ekintza-unitate horretaz gain, bai arte eszenikoen bai musikaren arloko elkarte profesional desberdinek inkestak abiarazi dituzte eta egoera honi aurre egiteko neurrien proposamenak osatu dituzte.

Arte eszenikoak

Antzoki, Entzunareto, Zirkuitu eta Jaialdien Espainiako Sarea (SAREA bere kideetako bat da) ildo ugari lantzen hasi zen:

- Martxoaren 20an [neurrien proposamen](#) bat bidali zioten INAEMi, batik bat enpresen biziraupenera bideratuta.
- Aurretik jakin zitekeen eran, datu ugari eskaini zirenez, eta elkarte ugari ekintzak eskatu zituztenez, mahai bat osatzeko deialdia egin zuten, sektoreko elkarte adierazgarrienei parte hartzera deituz, era horretan, adostutako neurri batzuk eskatzeko xedez. Bilketa- eta analisi-prozesuaren ondoren, [txoke-plan bat](#) aurkeztu zuten; plan horrek 27 neurri iradoki zituen kontratazio publikoaren, zergen, gizarte-segurantzako ekarpenen, dirulaguntzen deialdien eta enpresen finantzaketaren alorrean, beste sustapen-neurri batzuek gain.

- Erakusketa-espazioei zuzendutako [inkesta](#) bat ere abiarazi zuten, eta SAREA sareko antzokiek bertan parte hartu zuten. Txosten hori osatzeko unean, emaitza horiek, artean, argitaratu gabe daude.

Euskal antzokien egoerari buruzko informazioa eskuratzeko, **SAREA** erakundeak telefonoz egindako inkesta bat burutu zien 47 programatzailerari, bertan behera geratutako eta atzeratutako emanaldiei buruzkoa.

Bestalde, **Bertsozale Elkarteak** alarma-egoerak elkartearengan izandako eraginari buruzko informazioa biltzeko txosten bat idatzi zuen (apirilak 1); jarduerarengan, bertsolariengan eta Lankuk eskaintzen duen zerbitzuarengan izandako eragina azaldu zuen bertan, zeina zerbitzu horren bitartez kudeatzen diren saioak antolatzeaz eta kontratatzeaz arduratzen baita. Horretarako, 2019ko jarduerari eta fakturazioari buruzko datuak eta 2020ko jarduera galeratik eratorritako eragin ekonomikoaren aurreikuspenak adierazi zituen elkarteak. Horrez gain, txostenak neurri batzuk proposatzen zituen elkartearentzat alde batetik eta jarduera babestera bideratuta bestetik.

Musika

Musika Bulegoak ohar bat argitaratu zuen, esanez zenbait elkarte profesional informazio-bilketak burutzen ari zirela, hain zuzen: Musikari, Musikagileak, MIE eta Kultura Live. Datuak martxoko eta apirileko jardueraren jaitzierari buruzkoak dira eta, emaitza gisa, kontzertuen % 80 bertan behera geratu direla eta % 20 atzeratu direla diote. Musikari eta Musikagileak elkarteek covid-19ak Euskal Herriko profesionalengan izandako eraginari buruzko inkesta bat landu zuten batera, eta 125 profesionalek parte hartu zuten (% 68 musikari edo musikagileak ziren, baina teknikariak, irakasleak, DJak, editoreak eta kazetariak ere bazeuden, besteak beste).

Ikus-entzunezkoak

Martxoan zehar, euskal ikus-entzunezkoen alorreko eragile desberdinak covid-19ak sektorean izandako eraginari buruzko informazioa biltzen aritu ziren, tartean:

- **Las tres Film Comissions:** proiektuei, ekoizpenei eta aurreikusitako eta atzeratutako filmatze-egunei buruzko datuak.
- **EPE-APV:** bertan behera geratutako ekoizpenei buruzko datuak.
- **IBAIK** aurrerapauso esanguratsuak eman zituen ekoizpenak, enpleguak edota fakturazioak jasandako eragina eta laguntza espezifikotarako sarbide-maila neurtzeko inkesta bat diseinatu.
- **EHGEP Euskal Gidoigileak:** egoeraren deskribapen bat osatu eta neurri batzuk iradoki zituzten (artistaren estatutuarekin oso lerratuta) autonomoen eta alokairuen harira, eta hartzen hasitako neurriak balioestera bideratutako inprimaki bat diseinatu zuten. Estatu osoko 70 gidoilarik bete dute [inkesta](#).

- **EZAE:** Zinemen galerak baloratzeko lehenengo dokumentu bat sortu dute, eta neurri-sorta bat ere txertatu dute bertan. Maiatzean deskonfinamenduan aurreikusitako irekiera-planari buruzko [adierazpen](#) bat zabaldu zuten eta [Zinema](#) ekimenera batu ziren, hau da, zinema-aretoetara itzultzea sustatzeko Zineuskadik abiarazitako ekimenera.

Karraskan

Elkartek covid-19aren ondorioz izandako [ondorio ekonomikoen ikerketa](#) bat osatu zuen elkarteko bazkideen % 70en datuetan oinarrituta, eta apirilaren hasieran zabaldu zuten sare sozialen bidez. Landa-lana martxoaren 16tik 26ra bitartean burutu zen.

Euskal irudigileak

Martxoaren amaieran erakundeekin lehenengo kontaktuak abiarazi ostean, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren bidez, egoeraren lehenengo txosten bat osatu zuten, ilustrazioaren eta kulturaren sektoreentzat neurri zehatzak finkatuz. Alabaina, datuak falta zitzaizkienez, martxoaren 30ean Euskal Irudigileak elkarteak inkesta bat jaurti zuen; hasiera batean, Euskadira bideratuta zegoen, baina gero Irudigile Profesionalen Elkarteen Federazioa (FADIP) batu zitzaien, indarrak batu asmoz. Inkestak zabalik egon ziren apirilaren 23ra arte. Horietan 800 pertsonak parte hartu dute estatu-mailan. Euskadin 113 erantzun jaso dira. [Txosten osoa](#) apirilaren 30ean argitaratu zen.

Azpimarratu beharrekoa:

- Alarma-egoera adierazi zenetik, sektore eta eragile desberdinek berehalako erreakzio bat izan zuten bi norabidetan:
 1. Datuetan oinarritutako diagnostikoak osatu dituzte, horretarako inkesta ugari abiaraziz (denak ez ziren argitaratu).
 2. Larrialdi-neurriak eskatu dituzte.
- Zuzeneko arteetan (arte eszenikoak eta musika) interesak bateratzen saiatu dira.
- Sorkuntzarekin lotutako kolektiboek estatu-mailan indarrak batu dituzte, ikusgarritasun hobea lortuz.
- Abiarazi berri diren laguntzei buruzko gidak osatu dituzte zenbait elkartek, erakundeekin batera, neurriak hobeki komunikatzen lagunduz.

3. INKESTAREN EMAITZA OROKORRAK ETA BALIOESPENAK

Sektorearen begirada global eta konparagarri bat lortzeko asmoz, inkesta bakar bat diseinatu da sektore guztientzat, baina sektore bakoitzaren espezifikotasunetara egokituta dagoena. Ikerketaren diseinu metodologikoari esker, bizkor kalkulatu (hurbilketa) ahal izan da eragina, uneko premiari erantzunez. [Eranskinean](#) metodologiari buruzko atal bat txertatu da eta, lagina deskribatzeaz gain, eragina neurtzeko eta balioespenak burutzeko gauzatutako prozesua azaldu da bertan.

Eraginaren ikerketak datu-iturri desberdinak konbinatzen ditu, xede hauekin:


- 1) **Galdeketako datuetatik** abiatuta, iraganeko agertokien eta egungo agertokien edo covid-19aren ondoren aurreikusitako agertokien arteko alderaketa bat eskuratzea. Neurri horiek jardueraren, enpleguaren eta diru-sarreraren dimentsioetan hartzen dira. Agertoki bakoitzeko (iraganekoa eta egungoa edo aurreikusitakoa) emaitzak alderatuz, **eraginaren ehuneko** bat lortzea.
- 2) Sektoreko datu orokorretan oinarrituta —nola erroldan oinarritutako datuak izan edo datu adierazgarriak izan estatistikoki—, **eraginaren ehunekoak unibertsora proiektatzea. Datu ofizialak** dira, esate baterako, enpresei eta enpleguari buruzko EUSTATen Zerbitzuen Estatistikatik eta Kulturaren Euskal Behatokiko Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikatik hartuak.
- 3) Neurri horiez gain, eragileen **balorazio subjektiboak** ere txertatu dira.

Inkestaren **fitxa teknikoa**:

- Norberak kudeatutako sareko inkesta.
- 2020ko apirilaren 9tik 26ra bitartean egon da zabalik.
- Hautatutako lagina.
- N = 234
- Honako informazio hau:
 - Eragileen identifikazio-datuak
 - Jarduerarengan izandako eragina (sektoreen espezifikotasunak)
 - Enpleguarengan izandako eragina
 - Jarduera ekonomikoarengan izandako eragina
 - Egoera, aukerak eta txoke-proposamenak


3.1. Jarduera: Jaitsiera nabarmena eta homogeneoa

15. grafikoa. Covid-19aren ondorioz jarduerarengan aurreikusitako eragina (%)




- Eraginak hilabete horietan zehar **aurreikusita zeuden jarduerekin** alderatzen du kaltea. Martxoko egun batzuetan jarduera "ohi bezala" mantendu ahal izan zen, alarma-egoera dekretatu zen arte.
- Informazio horren atal bat **aurreikuspenean** oinarrituta dago (adibidez, maiatzeko hilabeteari dagokiona), izan ere, inkesta zabalik egon zen garaian ezin zen jakin deskonfinamendua nolako izango zen (apirilaren 28an argitaratu zen berau).
- Saltoki eta aretoak itxi egin direnez, jarduera publikoak jasandako eragina % 100ekoa izan den arren, zabalik mantendu den zati txiki bat ere bada. Esate baterako, **barneko jarduera**, beste bitarteko (digital) batzuetan gauzatu daitekeena, abian diren ekoizpenekin, plangintzarekin, berregokitzearekin, egutegien programazioarekin eta kudeaketarekin lotutako atazekin zerikusia duena, mantendu egin da.
- "Beste jarduera bat" atalean askotariko elementuak sartzan dira: udalerrietako erakusketa-espazio balioaniztunetako jarduera ez-eszenikoa (film-emanaldiak, adibidez), edota sortzaileen lantegiak, trebakuntza, bitartekaritza, eta abar.

16. grafikoa. Ikergai den hiruhilekoak 2019an jardueraren izan zuen pisua, urte osoan zehar (%)



- 2019ko datuetatik abiatuta, martxoa-apirila-maiatza hiruhilekoak urte osoan zehar izan zuen pisuaren ikuspegi bat lortzen dugu, eta horrek covid-19aren eragina hobeki **doitzea** ahalbidetzen digu, hain justu une horretan iritsi baitzen.
- Urte osoan zehar jarduera egonkorra izango balitz, edozein hiruhilekoren pisua, gutxi gorabehera, urte osoaren % 25ekoa izango litzateke (lerro berdea). Aldiz, zera ikusten da:
 - Oro har, martxoa, apirila eta maiatza **hilabete hobeak izan ziren jarduerari dagokionez**.
 - Martxoko, apirileko eta maiatzeko hilabeteak, batera, bereziki aktiboak izan ziren **sorkuntza-proiektuei**, denetariko **ekoizpenei** eta liburuen eta diskoen **merkaturatzeari** dagokienez.
 - Ikusleen **bertaratzearekin lotutako jarduerak** 25 baino apur bat altuagoak izan ziren, baina behin-behinekotasunik gabeko batezbestekotik gertuago daude.

17. grafikoa. Covid-19aren ondorioz jardueraren aurreikusitako eragin-mota (%)




- Jardueraren atal handiengan, eraginak **datarik gabeko atzerapenak** sortu ditu.
- Jarduerak ezeztatzea saihesteko programatzaileen borondatea islatzen du horrek, nahiz eta ziurgabetasunak eta azkeneko asteetan izandako informazio-aldaketek asko zaildu duten data berrien finkapena. Urteko programak jada itxita zeudela gogorarazi behar da, batik bat eragile handien kasuan eta, ondorioz, atzeratutako jarduerak ezin dira beti agendetan sartu.
- **Sorkuntza** eta **ekoizpena** dira **ziurgabetasun** handiena duten alorrak, datarik gabeko atzerapen gehienak bertan daudelarik.
- Ezeztapenen eraginak ondorio izugarriak izan ditu produktu fisikoaren salmentengan (liburuengan, gehien bat), **saltokiak itxi** egin baitituzte. Salmenta horien galerak ezin dira atzeratu; gehienaz ere, ondorengo hilabeteetakoekin orekatu edo konpentsatu ahalko lirateke (agertoki ideal batean).


→ Ikusi den eran, eta [sintesi-grafikoetan](#) sakondu daitekeen eran, jarduerak jasan duen eragina oso homogeneoa izan da, batezbestekoarekiko oso desbideratze gutxi daudelarik. Osterantzean, enpleguaren eta diru-sarreraren kasuetan, eragile mota desberdinek eragin mota desberdinak jasan dituzte.

3.2. Enplegua: Kaleratzeak saihestu arren, enplegu-maila eta batik bat lan-aukerak jaitsi egin dira


18. grafikoa. Covid-19ak lanarengan izandako mota guztietako eragina (tartean kaleratzeak, ERTEak eta beste neurri batzuk) (%)



19. grafikoa. Covid-19a heldu aurretik aurreikusten ziren etorkizuneko kontratazioek jasan duten eragin-maila (%)




20. grafikoa. Covid-19aren ondoriozko eragin motak lanarengan (%)




- Enpleguak jasandako eragin negatiboa **% 43,2**an dagoela zenbatu da. Laginaren datu absolutuetara joanez gero, horrek zera esan nahi du, **2020ko otsailean batez beste 5,9 pertsona** enplegatuta bazeuden, alarma-egoera adierazi osteko segidako agertokian **3,1 pertsonak** inolako neurririk jasan gabe jarraitzen zuela.
- Covid-19aren aurretik zegoen enpleguak jasandako eraginaz gain, **etorkizuneko kontratazioen aurreikuspenek** kalteak jasan dituzte, noski: batez beste % 80,4.
- Enplegurik gabe geratu diren pertsonen **babes-maila** (langabezia-prestazio bat edo autonomoen ezohiko prestazioa jaso ahal izan dutenak) **% 52,2**koa da.
- Hartu diren laneko neurrien artean, **eragileen % 50ek etete ERTEak eta lanaldi-murrizketako ERTEak izapidetu dituzte.**
- Eragileen kopuru handi bat (% 39,4) **adostutako beste neurri mota bat** hartzen ari da (opor egunen erabilera edo aurrerago berreskuratuko diren lanaldi-murrizketak, adibidez).
- **Eragileen %10ek** bere langile batzuk **kaleratu** beharra izan du.


21. grafikoa. Covid-19ak enpleguarengan izan duen eragina diru-sarreraren tamainaren arabera (%)



22. grafikoa. Covid-19aren eragina enpleguarengan titulartasunaren arabera (%)




- Datuek zera aurreratzen dute, enpleguak jasandako eraginari dagokionez, **eragile mota desberdinek beharrian zeharo desberdinak dituztela.**
- Titulartasunaren eta diru-sarreraren mailaren ikuspegiak bereziki aipagarriak dira:
 - **Titulartasun** publikoak edo pribatuak desberdintasun garbi bat dakar kasu honetan: jarduerak jasandako eragina homogeneoa zen bitartean, eragile pribatuek askoz neurri handiagoan pairatu dute eragina enpleguarengan.
 - **Diru-sarreraren maila** txikiak dituzten eragileek eragin txikiagoa jasan dute. Beharrezkoa da aintzat hartzea kasu asko autoenplegu kasuak direla. Enpleguarekiko eragina askoz handiagoa da diru-sarrera handiak dituztenen kasuan, enplegu gehien sortzen dutenak baitira.
- Sektoreen araberako emaitzak zentzu bertsuan interpretatu daitezke (sektorearen eta balio-katearen araberako grafikoak daude [eranskinean](#)):
 - Arte eszenikoak eta ikus-entzunezkoak giza kapital aldetik sektore intentsiboak direla kontuan izanda, horiek jasan duten beherakada apur bat nabarmenagoa izan da.
 - Ikusizko arteetan, aldiz, autoenplegatutako sortzaile kopuru handi bat dago, eta liburuaren sektorean eragile txikiak daude gehien bat (salbuespen esanguratsuren bat izan arren), eta bietan jaitsiera txikiagoa dela ikusten da.



- **Sexuen araberako begirada** batek zera erakusten du, aztertutako laginean gizon baino emakume gehiago daudela.
- Ondorioz, **kaltetutako emakume gehiago** daude **termino absolutuetan**.
- Arrazoi bera dela eta, kopuruaren aldetik emakumea sektoreko subjektu nagusia dela kontuan hartuta, zentzuduna da pentsatzea, datuek erakusten duten eran, eragina are kaltegarriagoa izan litekeela gizonentzat termino erlatiboetan:
 - Pandemiaren aurretik zeuden emakumeak baino gehiago daude sektorean covid-19aren ondoren.
 - Horrenbestez, **gizon gutxiago daude**.
- Nahiz eta lagin honetako datuek ez duten biztanleria osoaren gaineko inferentziarik egiten uzten (adibidez, zein sektoretan dauden emakume gehiago), hausnarketa kualitatibo batzuk egiteko aukera ematen dute:
 - Modu adierazgarri batean, **emakume gehiago aurkitu ditugu diru-sarrera gutxiko eragileen tarteetan** diru-sarrera askoko eragileen tarteetan baino ([eranskinean](#) sektore, balio-kate eta diru-sarrera maila bakoitzaren taulak daude, sakonago miatu ahal izateko).
 - Covid-19aren aurretik, 80.000 euro azpiko bi tarteetan % 68 eta % 63 emakume zeuden, eta gaineko bietan % 51 eta % 46:
 - Sektorean **gehiago irauten dute**, baina diru-sarrera baxuagoak dituzten lanpostuetan.


EUSTATen Zerbitzuen Estatistikako (2018) behin-behineko datuak erabiliz, sektoreak jasango duen **eragin globala** (% 43,2) proiektatu daiteke. Kontu handiz, ikerketa horretako laginaren osaera eta Zerbitzuen Estatistikaren metodologia aintzat hartuz (ikus [metodologiari buruzko eranskina](#)), modu globalean eraginaren magnitudea zein izango den kalkulatzeko (hurbilketa bat egiteko) balio dezake horrek.

24. grafikoa. Covid-19aren ondorioz kalteak jasan dituzten enplegu-kopuruaren zenbatespena






Iturria: EUSTATen datuak (Zerbitzuen Estatistika; 2018ko behin-behineko datuak) eta gure datuak
Oharra: Laginarekin kalkulaturako enpleguaren jaitziera % 43,2koa da

25. grafikoa. Covid-19aren ondorioz lan-neurri mota bakoitza jasan duen pertsona-kopuruaren zenbatespena




Iturria: EUSTATen datuak (Zerbitzuen Estatistika; 2018ko behin-behineko datuak) eta gure datuak
Oharra: Lagineko datuetan oinarrituta eragin-mota bakoitzaren ehunekoak honako hauek dira: Etete ERTEak % 38,3; Murrizketa ERTEak % 12,2; Kaleratzeak % 10,1, Beste neurri batzuk = % 39,4

3.3. Balantze ekonomikoa: Zenbaki gorriak




- 2020ko **martxoko balantzean**, emaitza hori 2019ko martxoko emaitzarekin alderatzean, eragin ekonomikoaren lehenengo neurri bat ikus daiteke:
 - 2020ko martxoko diru-sarrerak gastuaren erdia baino baxuagoak dira.
 - 2020ko martxoko diru-sarrerak 2019ko martxoko diru-sarreraren erdia baino baxuagoak dira.
 - Aurreko urteko martxoko balantzearen emaitza negatiboa zen arren, tartea seikoiztu egin da 2020an.
- Horrez gain, karga garrantzitsu bat inkesta egiterako unean **aurreratutako gastuekin** eta **ez ordaintzeekin** lotuta dago, zeinak **% 13,1**era igo diren.
 - Aurreratutako gastuek covid-19a heldu baino lehen 2020rako aurreikusi ziren urteko **diru-sarrera guztien % 8,5** ordezkatzen dute.
 - Ez ordaintzeei dagokienez, **% 4,5**era igo dira.
 - Oro har, aurreikusitako **urteko galeren herena** ordezkatzen dute, hau da, % 40,8 (ikus 29. grafikoa).

29. grafikoa. Covid-19aren eraginaren ondorioz aurreikusitako urteko galeren pisua, pandemiaren aurretik aurreikusitako diru-sarrerekin alderatuta (%)





- Eragile desberdinek 2020rako aurreikusten zituzten diru-sarrerei dagokienez, aurreikusitako galerak batez beste % 40,8ra heltzen dira, ustezko urteko diru-sarrerekiko. Hori dela eta, eragina **oso esanguratsua** izango da ehunekoetan.

30. grafikoa. Ikergai den hiruhilekoak 2019an izan zuen jardueraren pisua, urte osoko jarduera eta diru-sarrerekiko (%)



- Jarduerari dagokionez hiruhilekoaren pisua handia da, diru-sarrerei dagokienez hala ez izan arren. Alderaketa horrek kulturaren sektoreko **diru-sarrera irregularren** fenomenoaz azalera du, kasu batzuetan muturrekoa dena eta lan baten hasieraren eta kobratzeko unearen artean desfase bat sortzen duena. Sorkuntzan eta ekoizpenean bereziki garrantzitsua da fenomeno hori.
- Gogoan izan behar da, ordea, **garrantzitsuena jarduerak jasandako eragina** dela eta, beraz, gaur egun diru-sarrerek jasandako eragina baino garrantzitsuagoa dela jarduerak jasandako eraginaren ondorioz epe ertainean bere etorkizuna zein izango den.




- Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da covid-19ak dimentsio ekonomikoan izan duen eragina nabarmenagoa dela **eragile pribatuen** kasuan.
- Bigarrenik, ehunekoei dagokienez, gaitasun ekonomikoaren aldetik **eragile txikiak** direnek askoz eragin handiagoa jasan ohi dute, nahiz eta termino absolutuetan eragina nabarmenagoa den gaitasun handiagoko eragileen artean.
- Ondorioz, eragile pribatuek eta ekonomikoki gaitasun gutxiago dutenek jasaten dute talkarik handiena termino erlatiboetan.

EUSTATen Zerbitzuen Estatistikako (2016) datuak erabiliz, sektoreko negozio-zifrak jasango duen **eragin globala** (% 40,8) proiektatu daiteke. Kontu handiz, ikerketa horretako laginaren osaera eta Zerbitzuen Estatistikaren metodologia aintzat hartuz (ikus [metodologiari buruzko eranskina](#)), modu globalean eraginaren magnitudea zein izango den kalkulatzeko balio dezake horrek.

Gutxi gorabeherako galerak guztira


786.226.200 €

33. grafikoa. Galeren pisuaren zenbatespena kulturaren sektoreko negozio-zifrearengan




Iturria: EUSTATen datuak (Zerbitzuen Estatistika, 2016) eta gure datuak
Oharra: Laginarekin kalkulaturako galeren pisua % 40,8koa da

34. grafikoa. Kontzeptu desberdinen garrantzia bideragarritasun ekonomikoaren mantenuan (%)



- Azkenik, interesgarria da **bideragarritasun ekonomikoa** aztertzean pisu handiena zein gastuk duten ikustea.
 - Garrantzitsuenetik hasita, honako hauek dira: **betebehar fiskalak, langileen gastua, hornidurak** eta **kontratutako kanpo-zerbitzuak**.
- Beheko mailetan alokairuak eta maileguen interesen ordainketa agertzen dira.
- Halere, eragile guztiek ez dute gastuen egitura berdina. Lagina osatzen duten hiru eragile nagusien profilak behatuz gero (autonomoak, sozietate anonimoak eta erantzukizun mugatukoak), honako hau ikus daiteke:


35. grafikoa. Kontzeptu desberdinen garrantzia bideragarritasun ekonomikoaren mantenuan, forma juridiko bakoitzaren arabera(%)




- **Betebehar fiskalak** garrantzitsuak dira **denentzat**, nahiz beste faktore batzuekin alderatuta autonomoentzat bereziki garrantzitsuak diren.
- Desberdintasun garrantzitsu bat **langileen gastuarekin** lotuta dagoena da, izan ere, erabateko garrantzia dauka **SA** eta **SM**-en kasuan.
- Era berean, **kontratutako kanpo-zerbitzuak** eta **hornidurak** batezbestekoaren gainetik kokatzen dira **SA** eta **SM**-en kasuan; aitzitik, **autonomoen kasuan** batezbestekoaren azpitik egonagatik, betebehar fiskalen ondoren garrantzi gehien duten hurrengo bi faktoreak dira.
- Azkenik, **maileguen interesak** aipatu behar dira, azpimarratzeko moduko garrantzia baitute **SA** eta **SM**-en kasuan.

3.4. Eraginaren eta erantzunaren balioespen subjektiboak


36. grafikoa. Covid-19aren aurreko egoeraren balioespena (%)






37. grafikoa. Covid-19aren eraginaren balioespena (%)



38. grafikoa. Covid-19ak sortutako egoerari aurre egiteko gaitasunaren balioespena (%)




- Covid-19aren aurreko egoerari buruzko balioespenei dagokienez, **eragile gehienenek pertzepzio positiboak** dituzte: egoera ona edo oso ona zela uste duten eragileen batura % 57koa izan da (% 40,2 ona eta %17,1 oso ona).
 - Osterantzean, eragileen % 20k uste du aurretiko egoera txarra edo oso txarra zela (% 14,5 eta % 5,6 hurrenez hurren).
- Eraginari dagokionez, **eragileen % 67,5ek eragin sakona edo erabatekoa aurreikusten du**. Ezin da ahaztu inkesta burutu zen egunetan, artean, ez zegoela garbi egoera honek zer iraupen izango zuen. Oro har eragin sakona aurreikusten zen arren, gerta liteke eragin zirkunstantziala hautatu zuten balioespen batzuk iraungi izana.
- Azkenik, **eragileen %44k uste du erantzuteko gaitasun txikia duela** egoera honi aurre egiteko, eta **% 37,6k uste du maniobra-tarte handi samarra duela**. Horrenbestez, eragile desberdinen abiapuntuen artean desberdintasun handia dagoela esan daiteke.



→ Aurreko datuek erakusten zuten eran, **titulartasun pribatuko** eragileek eta eragile **txikiek** zailtasun handiagoak izan dituzte egoerari aurre egiteko. Dena den, ikuspegi honetan zera atzeman daiteke, urtean 80.000 - 250.000 euroko tartean kokatzen diren eragileek ere batezbestekoaren azpitik balioetsi dutela euren gaitasuna.


→ Hori aintzat hartuta, kasu honetan interesgarria da balio-katearen araberako banaketa aztertzea, desberdintasunak erakusten baititu. **Sorkuntzan, ikerketan edota trebakuntzan** jarduten duten eragileak dira gaitasun txikienarekin ikusten direnak. Aurrakako aldean merkaturatze- eta banaketa-eragileak daude, soilik kultur produktuen merkataritzan (**kultura erreproduzigarria**) jarduten dutenak. Ildo horretatik, balioespen onena kudeaketan eta kudeaketa-laguntzan jarduten duten eragileek daukate.

42. grafikoa. Ondorengo neurriengandik lortutako onura-maila (batezbestekoa, 1 "batere ez" eta 5 "erabat" izanik) (%)




- Alarma-egoeraren hasieran zenbait neurri abiarazi zituzten. Orokorrean, eragileek **onura gutxi lortu dute** neurri horiengandik. Hori dela eta, hain zuzen, berriki beste neurri batzuk diseinatu dituzte kulturaren sektoreko errealitatea hobeki artatzeko.
- Hasierako neurrien artean, aipagarrienak **telelan-konponbideak, ERTEen** eta **zerga-betebeharren malgutzea** eta **beste administrazio-prozedura batzuk** dira.
- Neurri horien desbideratzea behatuz gero, hiru neurri horiek **baliatu dituzten mailan aldakortasun handia** ikusten da; hau da, batzuek onura gehiago lortu dituzten bitartean, beste batzuek onura gutxiago eskuratu dituzte. Horrek egoerari aurre egiteko norberak hautemandako gaitasun desberdinak indartzen ditu. Zehazki figura juridiko nagusiak eta diru-sarrerak behatuz gero, are hobekiago ikusten dira desberdintasun horiek (43 eta 44 grafikoak).

43. grafikoa. Ondorengo neurriengandik lortutako onura-mailaren batezbestekoa, forma-juridikoen arabera (1 "Batere ez" eta 5 "Erabat" izanik) (%)



44. grafikoa. Ondorengo neurriengandik lortutako onura-mailaren batezbestekoa, diru-sarreraren arabera (1 "Batere ez" eta 5 "Erabat" izanik) (%)




- **Telelana burutzeko, ERTEak malgutzeko eta finantzaketa- eta likidezia-laguntza jasotzeko** aukera izatean datza desberdintasuna.
 - Zentzu horretan, beharrezkoa da azpimarratzea figura juridiko horiek eta horiei dagozkien balioespenak laginean jasotako **jarduera-motarekin** lotuta daudela, eta langile autonomoen % 62k sorkuntza-jarduerak gauzatzen dituela.


- Aipagarria da hasierako neurri guztiak **erabilgarriagoak izan direla SA eta SM-entzat** eta **diru-sarrera handiagoak dituzten eragileentzat**, autonomoentzat eta diru-sarrera txikiagoak dituztenentzat baino. Sektorearen espezifikotasunak alde batera utzita, edo horien ondorioz, zehatzagoak izatearren, honako hau ikusi da:
 - Eragile txikienak dira onura gutxien jaso dituztenak, nahiz eta agian horietako batzuentzat aukera bideragarriak izan zitezkeen. Eragile horiek kudeaketa-gaitasun gutxiago dutenak dira eta, beste faktore batzuekin batera, “**non-take-up**” efektua edo eskaerarik ez egin izana gertatu izan zitezkeen: eragile bakoitzaren berezko faktore batzuek (informazioa eskuratzeko oztopoak, kudeaketa gaitasuna, eta abar), faktore administratibo batzuek (prozesu burokratikoak...) edo neurrien zenbait diseinu-faktorek (argitasuna eta gardentasuna, baldintza espezifikokoak...) horien eraginkortasuna eragozten dute (euren helburua bete eta beharrian handiena duten horiengana heltzea).

4. SEKTORE BAKOITZAREN IKUSPEGIA


4.1.Arte eszenikoak




46. grafikoa. Aurreko egoera, jardueraren arabera
(Iturria: Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistika)



47. grafikoa. Jarduerarengan izandako eragina (%)




48. grafikoa. Eragina enpleguarengan eta diru-sarrerengan (%)




4.2. Ikusizko arteak

49. grafikoa. Lagineko taldearen ezaugarriak (%)




50. grafikoa. Aurreko egoera, jardueraren arabera


(Iturria: Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistika)



51. grafikoa. Jarduerarengan izandako eragina (%)




52. grafikoa. Eragina enpleguarengan eta diru-sarrerengan (%)




4.3. Liburuak

53. grafikoa. Lagineko taldearen ezaugarriak (%)




54. grafikoa. Aurreko egoera, jardueraren arabera


(Iturria: Arteei eta Kultura Industriari buruzko Estatistika)



55. grafikoa. Jarduerarengan izandako eragina (%)




56. grafikoa. Eragina enpleguarengan eta diru-sarrerengan (%)




4.4. Musika

57. grafikoa. Lagineko taldearen ezaugarriak (%)




58. grafikoa. Aurreko egoera, jardueraren arabera


(Iturria: Arteen eta Kultura Industriei buruzko Estatistika)



59. grafikoa. Jarduerarengan izandako eragina (%)




60. grafikoa. Eragina enpleguarengan eta diru-sarrerengatik (%)



4.5. Ikus-entzunezkoak

61. grafikoa. Lagineko taldearen ezaugarriak (%)




62. grafikoa. Aurreko egoera, jardueraren arabera


(Iturria: Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistika)



63. grafikoa. Jarduerarengan izandako eragina (%)




64. grafikoa. Eragina enpleguarengan eta diru-sarrerengan (%)




4.6.Zeharkako ikuspegia


65. grafikoa. Lagineko taldearen ezaugarriak (%)



66. grafikoa. Jarduerarengan izandako eragina (%)




67. grafikoa. Eragina enpleguarengan eta diru-sarrerarengan (%)




4.7.Kultura euskaraz*


68. grafikoa. Lagineko taldearen ezaugarriak (%)



69. grafikoa. Jarduerarengan izandako eragina (%)




70. grafikoa. Eragina enpleguarengan eta diru-sarrerengan (%)



*Burutzen dituzten lanen hizkuntza nagusiki edo beti euskara dela adierazi duten kasu horien emaitzak bildu dira atal honetan.

5. SEKTOREA BABESTEKO NEURRIEN SINTESIA

Ikuspegi kronologikoak zera erakusten du, sektorearentzako neurri espezifikoak, bere berezitasunari dagozkionak (ildo horretatik, [Artistentzako eta kultura-arloko profesionalentzako etorkizuneko aukerak](#) buruzko KEB/OVCren azkeneko txostena kontsultatu daiteke), aurrerago hasi zirela agertzen, neurri orokorrak konpentsatze edota osatze aldera. Goiko atalean espainiar estatuaren neurriak agertzen dira, eta beheko atalean, berriz, euskal erakundeen neurriak. Gorri-kolorez neurri orokorrak adierazi dira, eta laranja-kolorez neurri espezifikoak.



Kulturaren sektorearengan interes espezifikoa izanik neurri desberdinak aztertzearen, [Covid-19a dela eta, euskal kultura-sektorerako intereseko neurri eta laguntzen gida](#) kontsultatu daiteke, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta [Banakako eta Aparteko Aholkularitza-zerbitzuak](#) berak sortu dutena.

Sintesi gehigarri gisa, begirada kronologikoaz gain, sailkapen tipologiko batek egungo egoera ikuspegi orokor eta analitiko batetik artatzea ahalbidetzen du. Ondorengo laukian laguntzak sailkatu dira, euren izaera orokor edo espezifikoaren eta zuzeneko edo zeharkako izaeraren arabera: bitartekorik gabe eragileen diru-sarrerengan eragin handia dutenean laguntza zuzenak izango dira, eta balantze ekonomikoari beste moduren batera eragiten diotenean zeharkakoak.

Laguntza zuzenak	ESPEZIFIKOAK
<p>OROKORRAK</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Autonomoentzako ezohiko prestazioa ▪ Langabezia-laguntzaren baldintza bereziak. ▪ ERTEen malgutzea. ▪ Finantziazioa eta likidezia. <p>Zeharkako laguntzak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kulturako profesionalentzako aparteko laguntzak. ▪ Ikuskizun publikoetako artistentzako langabezia-laguntza. ▪ Kultura-jarduerentzako (sorkuntza, ekoizpena, programazioa...) dirulaguntzak. ▪ Dirulaguntzen baldintzak malgutzea eta kalteen konpentsazioa. ▪ Finantziazio eta likidezia espezifikoak (CREA-SRG). ▪ Kultura-programazio publikoa. ▪ Osasun-egokitzapenerako laguntzak. ▪ Sustapena/publizitatea. ▪ BEZ kulturala aldatzea. ▪ Aholkularitza-zerbitzu espezifikoak. ▪ Kultura bonua. ▪ Kultura mezenasgoa.

Azkenik, analisiari amaiera emateko, ondorengo laukian aurreko orrialdean sailkatutako neurriak laburbildu dira (*O* edo orokorrak eta *E* edo espezifikoak bereiziz), eta hobeto uler daitezten adibide laburrak edo deskribapenak gehitu dira, neurri horiek zein erakundek bultzatzen dituzten adierazteaz gain. Hala, administrazioko maila bakoitzak zer alderdiri eragiten dion ikusi ahalko da.

	Neurria	Deskribapen laburra/adibidea	Erakundeak
[O]	Autonomoentzako ezohiko prestazioa	Prestazioen bidez diru-sarrerak bermatzea (norberaren konturako enplegua).	Estatua
[E]	Kulturako profesionalentzako aparteko laguntzak.	Prestazioen bidez diru-sarrerak bermatzea (norberaren konturako enplegua).	Eusko Jurlaritzza
[E]	Ikuskizun publikoetako artistentzako langabezia-laguntza	Prestazioen bidez diru-sarrerak bermatzea (besteren konturako enplegua).	Estatua
[O]	Langabezia-laguntzaren baldintza bereziak.	Prestazioen bidez diru-sarrerak bermatzea (besteren konturako enplegua).	Estatua
[O]	ERTEen malgutzea.	Enpresen itxiera saihestea eta diru-sarrerak mantentzea.	Estatua
[O]	Finantziarioa eta likidezia	Kredituak, abalak...	Estatua, Eusko Jurlaritzza (Finantzen Euskal Institutua)
[E]	Finantziario eta likidezia espezifikoak (CREA-SRG)	Kulturaren sektoreko ETE-entzako kreditu eta abal espezifikoak.	Estatua
[O]	Zerga-erraztasunak	Gizarte Segurantzako kotizazioen luzamendua, ordainketen gerorapenak, arintzea...	Estatua, Eusko Jurlaritzza (Lanbide, SPRI), Foru Aldundiak
[E]	BEZ kulturala aldatzea	Kultur produktuen BEZa txikiagotzea; esate baterako, liburu elektronikoko eta prentsa digitalarena.	Estatua
[O]	Aholkularitza-zerbitzuak	Enpresa-aholkularitza	Estatua, Eusko Jurlaritzza, Aldundiak (Gipuzkoa)
[E]	Aholkularitza-zerbitzu espezifikoak	Artistentzako eta kulturako profesionalentzako aholkularitza	Eusko Jurlaritzza, Aldundiak (Gipuzkoa)
[O]	Dirulaguntzen epeak aldatzea	Dirulaguntzak gauzatu ahal izateko jarduera, justifikazioa eta egiaztapena erraztea	Estatua
[E]	Kultura-jarduerentzako dirulaguntzak	Kultura-proiektu eta -jarduerak mantentzeko eta sortzeko dirulaguntzak	Estatua, Eusko Jurlaritzza, Aldundiak, Udalak
[E]	Dirulaguntzen baldintzak malgutzea eta kalteen konpentsazioa	Dirulaguntzak egungo egoerara egokitzea eta ezeztatze eta atzerapenen ondoriozko diru-sarrerak konpentsatzea	Estatua
[E]	Kultura-programazio publikoa	Kulturako artisten eta profesionalen kontratazioa	Udalak
[E]	Osasun-egokitzapenerako laguntzak	Instalazioak eta jarduerak higie- eta segurtasun-baldintzetara egokitzeko baliabideak (adibidez, zinemei laguntzea)	Estatua
[E]	Sustapena/publizitatea	Kultura-ekitaldietara gerturatzea edo kultura-jarduerak burutzea sustatzeko kanpainak	Estatua, Aldundiak (Bizkaia)
[E]	Kultura bonua	Kultura-gasturako txekuek herritarrentzat	Aldundiak (GFA), Udalak (Bilbo)
[E]	Kultura mezenasgoa	Kultur eragileei dohaintzak egiteko zerga-pizgarriak	Estatua, Aldundiak (Gipuzkoa, Bizkaia)

Bi begiradek (kronologikoak eta tipologikoak) aintzat hartu beharreko errealitatearen ezaugarri batzuk azalera dituzte:

- Sektorearentzako laguntza espezifikoek denbora apur bat behar izan zuten heltzeko. Hasiera batean, premia ikusirik, ekintza publikoak zeharkako neurriak sustatu zituen, baina neurri horiek desegokiak gertatu ziren kulturaren sektorearen zati handi batentzat. Halaber, sektore honek ekonomia osoaren zati esanguratsu bat betetzen duela eta funtzio sozial garrantzitsu bat daukala gogorarazi behar da.
- Sektoreak, bere elkarrekin bidez mobilizatu izanari esker, errealitate hori ikustaraztea eta konpromisoak hartzea lortu zuen, azkenean laguntza espezifikoaren moduan hezurramitu zirenak.
- Ikuspegi kronologikotik begiraturaz gero, epe ertainak ziurgabetasun-elementu garrantzitsu bat izaten jarraitzen du: arintze-prozesua nola gauzatu den jakiteak mobilizatzen hastea ahalbidetzen duen beharrezko epe ertainerako gida bat eskaintzen du, baina zalantza garrantzitsuak daude ikusleen erantzunari buruz, baldintza berrietan proiektuen bideragarritasun ekonomikoari buruz eta pandemiaren bilakaeraren arabera lehengo errealitatera itzultzeko aukerari buruz.
- Ikuspegi tipologikoaren kasuan, erakunde eta sail desberdinek parte hartu dutela aipatu behar da. Ekintzak maila askotakoa eta sailartekoa izan behar du. Eragile bakoitzak baliabide desberdinak eskaintzen ditu bere kompetentzia espezifikoaren bidez. Gainera, laguntzen zuzeneko edo zeharkako izaeraren bidez, neurri-sorta zabal bat osatzeko aintzat hartu beharreko zeharkako ezaugarrien ardatz bat gehitu daiteke.
 - Eragile esanguratsuen artean aldundiak daude, ogasun gisa daukaten funtzioa dela eta, eta udalerrri mailan udalak aipatu behar dira, sektorearen programatzaile eta motor gisa.
 - Estatu- eta autonomia-mailan jardura osagarriak atzeman dira; izan ere, autonomia-erkidegoek eskumen garrantzitsuak dituzte sail desberdinetan eta urritasunak zuzentzeko edo beren interesak artatzeko gaitasuna dute. Eusko Jaurlaritzak kulturaren sektoreko langile autonomoentzako 2,5 milioi euroko funts bat onartu izana horren erakusgarri da.
 - Neurri mota desberdinen bidez kulturaren alor eta esparru heterogeneoen errealitatera egokitze saiakera egin da eta, ildo horretatik, beste diziplina batzuetara bideratutako tresnak ere sortu dira; esate baterako, ikus-entzunezkoentzat, liburuentzat, musikarentzat, arte eszenikoentzat edota arte ederentzat.
- Hala eta guztiz ere, analisi hau atariko analisi bat besterik ez da. Neurrien azterketa xehatuago bat egitea aurreikusi da, neurri bakoitzaren helburuaren arabera (enplegua babestea, altxortegia izatea, kontsumoa sustatzea, eta abar). Ikuspegi hori hurrengo hilabeteetan zabalduko diren etorkizuneko agertokiak jorratuko dituen beste txosten batean aplikatuko da.

6. ONDORIO GISA

- Covid-19a kultura-adierazle gehienak bilakaera positiboa izaten ari ziren testuinguru batean agertu da.
- Jarduera eten egin da eta urruntzea denboran luzatzearen ondorioz, eta horrek agertoki berri bat marraztu du, beste ezaugarri batzuk dituen krisi ekonomiko bat ekarri du, zeinak ziurgabetasun-maila altuak eta testuinguru aldakor bat sortu dituen.
- Jarduerak jasandako eragina % 82,6koa da, kaltetutako enplegua % 43,2koa, eta urteko galerak covid-19aren aurretik aurreikusitako diru-sarreraren % 40,8 izango direla zenbatetsi da.
- Jarduera, enplegua eta diru-sarrerak ez dira dimentsio trukagarriak:
 - Jarduerak jasandako kalteak kulturaren alor eta sektore guztiak zeharkatu dituen arren, enpleguak eta diru-sarrerak jasan duten eragina sektore bakoitzaren berezko berezitasunekin lotuta dago.
 - Horrez gain, dimentsio garrantzitsuena jarduera da, enpleguaren eta diru-sarreraren gainetik; izan ere, jarduerarik gabe ezin dira existitu. Guztiek eten dute jarduera, baina ondorio desberdinak izan dituzte.
- Sektorearen eta sektoreko jardueraren izaeraz gain (zuzeneko kulturaren eta kultura erreproduzigarriaren bereizketa nagusiarekin), titulartasuna, eragile-mota eta balio-katea uztartzen dituen beste ardatz bat dago:
 - Alde batetik, sorkuntzan lan egiten duten langile autonomoek multzo garrantzitsu bat osatzen dute kulturaren ekosistemaren barruan.
 - Bestetik, bereziki ekoizpen- eta merkaturatze-jarduerak burutzen dituzten sozietateek (batik bat enpresa txiki eta ertainak) eragin eta beharrian espezifikoak dituzten beste multzo bat eratzen dute.
 - Azkenik, eragile publikoek hirugarren multzo bat osatzen dute, eragin eta ahalmen espezifikoak izanik.







Sistema bere osotasunean hartzea, bere heterogeneotasun osoarekin eta horrek dakarren teilakatzearekin, gogoan izan beharreko faktore garrantzitsu bat da: ikuspegi global eta estrategiko bat izanez ekiten lagundu behar du, etorkizuneko agertokietan pentsatzeko ahalmen handiagoa izango duen ikuspegi bat izanez.

- Hartu diren neurriak aztertuz gero, azpimarratzekoa da maila askotako eta sailarteko esku-hartzea izan dela:
 - Maila eta sail desberdinek tresna desberdinak dituzte eskura, eta beharrian desberdinen aurrean ahalmen desberdina dute. Ekintza ordenatu eta koherente batek plus bat gehituko luke.
 - Egunak aurrera joan ahala, agerian geratu dira sektorearen espezifikotasunak, oro har sektore honek onura gutxi lortzen baitu neurri orokorregandik

ERANSKINA

Metodologia

Laginaren ezaugarriak



Multzo heterogeneo bateko 234 eragilek erantzun diote kulturaren sektoreko inkestari, askotariko profilak dituztenak bai titulartasunari, bai balio-katean betetzen duten posizio nagusiari, bai euren diru-sarrerren mailari dagokienez. [Eranskinean](#) datu zehatzak kontsultatu daitezke.

Datuak irakurtzerakoan, kontuan izan behar da:

- Sorkuntzan eta arte eszenikoetan lan egiten duten eragileak direla nagusi; eragile pribatuak, bereziki profesional autonomoak eta merkataritza-sozietateak.
- Diru-sarrerei dagokienez, finkatutako tarte desberdinetan zehar zabaldua dago lagina, edo behintzat, gehiengo baina gehiago urteko 80.000 euroko diru-sarrerren azpitik kokatzen da.
- Lurralde Historikoen arabera, erdiak Bizkaian daude, heren bat Gipuzkoan eta gainerako % 15a Araban.
- Enpleguaren tamainaren heterogeneotasuna aztertuz gero, autonomo gisa lan egiten duten pertsonak dira gehienak, baina badaude 150 langiletik gora dituzten enpresak ere.
- Titulartasunari erreparatuz gero, gehienak enpresa pribatuak dira eta balio-katearen funtzio desberdinetan zehar hedatuta daude. Sektoreen arabera, arte eszenikoen, ikusizko arteen eta liburuen esparrua dira gehien agertzen direnak. Erakunde publikoak bereziki erakusketaren eta neurri txikiagoan kudeaketaren eta laguntza-zerbitzuen alorrean pilatzen dira (batik bat udalerriko kultura-kudeaketan). Hirugarren sektoreko eragileak zeharkako jardueran lan egiten dute.

Azkenik, inkesta bete duten eragileen artean kultura-jarduerari laguntza-teknikoa eskaintzen dieten enpresak edo enpresa osagarriak daude. Enplegu kopuru esanguratsua sortzen duten enpresak direla esan behar da.

Inkesta 4 ataletan banatuta dago. Eragina 3 dimentsiotatik aztertzen du eta egoeraren balioespen subjektibo bat eskaintzen du. Abiapuntu horretatik:

- Lehenik, lagin baten bidez, sektoreak jasandako eragina kalkulatzea (hurbiltzea) ahalbidetzen du inkestak.
- Bigarrenik, eraginaren ehuneko horiek sektoreko datu unibertsaletara edo errolda-datuetara aplikatzen dira.

Bi informazio-iturri horiek uztartuz, arazoaren tamainaren hurbilketa bat eskuratzen da, nola ehunekoetan hala termino absolutuetan.

Eraginaren adierazleak

3 dimentsioak honako hauek dira: **jarduera, enplegua** eta **diru-sarrerak**.

Eraginaren neurketa **agertokiak alderatuz** gauzatzen da. Funtsean: lehen nolakoa zen, nolakoa izango zela aurreikusten zen eta nolakoa ari den izaten. Jarraian adierazi den eran, bi agertokiak erkatzen dituzten **ehunekoak** dira:

→ **Jarduera (ehunekoetan):** Martxoan, apirilean eta maiatzean kaltetuta gertatu den jarduera, covid-19aren aurretik aurreikusi zenarekin alderatuta. Kasu honetan, adierazleak honako hauen arabera bereizi dira:

- Sorkuntza-proiektuak, edozein sektoretan
- Ekoizpen, argitaletxeen proiektu edo musika-proiektu berriak, sektorearen arabera
- Emanaldiak, kontzertuak, erakusketak edo film-emanaldiak, sektorearen arabera
- Saldutako liburu edo diskoak sektorearen arabera
- Beste jarduera bat (orokorra)

Kaltetutako jardueraren adierazle orokorra hauetako jarduera bakoitzak laginarengan daukan pisuan oinarritutako *batezbesteko haztatu* bat da.

→ **Galerak (ehunekoetan):** Aurreikusitako galeren pisua, covid-19aren aurretik 2020rako aurreikusitako diru-sarrera guztiekiko. Horrez gain, kalkulatu da:

- Aurreratutako gastuak: Covid-19aren eragina jasan duten jardueri aurreratu zaien inbertsioen pisua, covid-19aren aurretik 2020rako zenbatetsitako diru-sarrerekiko.
- Ez ordaintzeak: Egungo ez ordaintzeen pisua, covid-19aren aurretik 2020rako zenbatetsitako diru-sarrerekiko.

→ **Enplegua (ehunekoetan):** 2020ko otsailarekin alderatuta, enplegu-kopurua jaitsi egin zen alarma-egoeraren ostean. Enpleguaren jaitsiera horrek, kaleratzeak ez ezik, askotariko arrazoiak direla eta (ERTEak, eta beste neurri batzuk) euren lanpostuak kaltetuta ikusi dituzten pertsona horiek guztiak hartzen ditu barnean. Gainera, honako hau aurkeztu da:

- Sexuen araberako eragina: covid-19aren aurreko eta ondorengo emakumeen eta gizonen ehunekoak.

- Langabeen babes-maila: Langabezia-prestazioren bat edo autonomoentzako ezohiko prestazioren bat jaso duten pertsona-kopurua, kalteren bat jasaten ari diren pertsona guztiekiko.
- Etorkizuneko kontratazioen kaltetze-maila martxoan, apirilean eta maiatzean, aurreikusitakoak eta covid-19aren ondorioz kaltetutakoak alderatuz. Honako hauek bereizi dira:
 - Behin-behineko langileak
 - Egiturazko langileak
 - Guztira
- Laneko neurri desberdinen eragina, nolabaiteko kalteren bat jasan duten horiekin guztiekin erkatuta.
 - Hitzarmena eteteko ERTEak
 - Lanaldia murrizteko ERTEak
 - Kaleratzeak
 - Beste neurri batzuk (lanaldiaren, egutegiaren edota ordainsariaren moldaketa informalak, eta abar)

Zenbatespenak

Jarraian, lortu diren eraginaren adierazleak eragina proiektatzeko erabili dira. Ehunekoak sektoreko datu globalengan aplikatzen dira, jarraian adierazten den eran:


- Zenbatespenak kalkulatzeko EUSTATen Zerbitzuen Estatistikako datu berrienak erabiltzen dira.
 - Enpleguari dagokionez, datu horiek 2018ko estatistikakoak dira. Behin-behineko datuak dira.
 - Diru-sarreraren kasuan, datuak 2016koak dira. Argitaratutako azkeneko datuak dira, hain zuzen.
- Estatistika horretako datuak egokiagotzat jotzen dira sektorearen heterogeneotasuna modu orokorragoan islatzen dutelako; izan ere, Jarduera Ekonomikoen Direktorioa ustiatzean oinarritzen da, eta kulturaren esparruan lan egiten duten pertsona eta enpresa mota guztiak sailkatzen ditu.

Zenbatespenak gorri-kolorez estalita erakusten dira beti, txosten honetan egin den bezalaxe.

Sintesi-grafikoak


Titulartasunaren arabera: Gaineragin ekonomikoa eta laborala sektore pribatuaren

7. eranskineko grafikoa Jarduerak, diru-sarrerek eta enpleguak jasandako eragina, titulartasunaren arabera %





Sektorearen arabera: Eragin homogeneoa jarduerarengan eta eragin heterogeneoa ekonomiaren eta lanarengan

8. eranskineko grafikoa Jarduerak, diru-sarrerek eta enpleguak jasandako eragina, sektoreen arabera %




*"Kultura euskaraz" kategoria ezin da besteengandik bereizi. Euren kultura-jarduera gehien bat euskaraz burutzen dutela adierazi duten eragileen multzoa da.

Balio-katearen arabera: Guztiz zeharkako eraginak**9. eranskineko grafikoa Jarduerak, diru-sarrerek eta enpleguak jasandako eragina, balio-katearen arabera %**

Lurraldearen arabera**10. eranskineko grafikoa Jarduerak, diru-sarrerek eta enpleguak jasandako eragina, lurraldearen arabera %**

Diru-sarreraren kopuruaren arabera: Zenbat eta dimentsio txikiagoa izan, orduan eta handiagoa da eragina termino erlatiboetan



11. eranskineko grafikoa Jarduerak, diru-sarrerak eta enpleguak jasandako eragina, diru-sarreraren arabera %



*Soilik eragile pribatuak (enpresak edo hirugarren sektorea)

Taula eta grafiko osagarriak

Enpleguaren jaitziera sektoreen eta balio-katearen arabera



1. eranskineko taula Gizonen eta emakumeen pisua covid-19aren aurretik eta ondoren, sektorearen arabera

	Arte eszenikoak	Ikusizko arteak	Liburuak	Musika	Ikus-entzunezkoak	Zeharkako ikuspegia
Aurreko enplegua, emakumeak	59,01	70,99	58,08	29,18	48,56	59,38
Aurreko enplegua, gizonak	40,99	29,01	41,92	70,82	51,44	40,62
Ondorengo enplegua, gizonak	60,23	70,07	60,89	29,11	51,09	66,07
Ondorengo enplegua, emakumeak	39,77	29,93	39,11	70,89	48,91	33,93

2. eranskineko taula Gizonen eta emakumeen pisua covid-19aren aurretik eta ondoren, balio-katea arabera

	Sorkuntza, ikerketa eta trebakuntza	Ekoizpena	Merkaturatzea eta banaketa	Erakustaldia	Kudeaketa eta kudeaketa-laguntza
Aurreko enplegua, emakumeak	63,99	44,91	53,31	59,20	62,56
Aurreko enplegua, gizonak	36,01	55,09	46,69	40,80	37,44
Ondorengo enplegua, gizonak	67,61	42,52	49,30	66,76	71,28
Ondorengo enplegua, gizonak	32,39	57,48	50,70	33,24	28,72

3. eranskineko taula. Gizonen eta emakumeen pisua covid-19aren aurretik eta ondoren, diru-sarreraren arabera

	20.000 baino gutxiago	20.000 - 80.000	80.000 - 250.000	250.000 baino gehiago
Aurreko enplegua, emakumeak	67,85	63,50	51,05	46,06
Aurreko enplegua, gizonak	32,15	36,50	48,95	53,94
Ondorengo enplegua, gizonak	69,61	69,31	50,31	47,05
Ondorengo enplegua, gizonak	30,39	30,69	49,69	52,95